

2016 / 13

BALDINTZA EKONOMIKO-ADMINISTRATIBOEN AGIRIA, CASARES-TOMASENE KULTUR ETXEAN IRRATI ZERBITZUA ETA IRRATI ETA KOMUNIKAZIOKO TAILERREN DINAMIZAZIOA ETA IKASTAROAK EMATEA KONTRATATZEKO EGINGO DEN LIZITAZIOA PROZEDURA IREKI BIDEZ ARAUTUKO DUENA

- 1. KONTRATUAREN XEDEA**
- 2. ERAKUNDE KONTRATATZAILEA ETA KONTRATAZIO ORGANOA**
- 3. ESLEIPEN PROZEDURA**
- 4. ALDAERAK**
- 5. KONTRATUKO DOKUMENTAZIOA**
- 6. IRAUPENA**
- 7. URTEKO GEHIENENKO LIZITAZIO AURREKONTUA, GEHIENENKO LIZITAZIO PREZIO UNITARIOA ETA KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA**
- 8. PREZIOA ORDAINTZEA**
- 9. PREZIOA BERRIKUSTEA**
- 10. PUBLIZITATEA**
- 11. BEHIN BETIKO BERMEA**
- 12. GAITASUN BALDINTZAK**
- 13. PROPOSAMENAK ETA DOKUMENTAZIOA AURKEZTEA**
- 14. BALORAZIO IRIZPIDEAK**
- 15. EBALUAZIO BATZORDEA**
- 16. PROPOSAMENAK IREKITZEA**
- 17. KONTRATUA ESLEITZEA**
- 18. KONTRATUA BURUTZEA ETA FORMALIZATZEA**
- 19. KONTRATUAREN ARDURADUNA**
- 20. KONTRATUA GAUZATZEA**
- 21. OINARRIZKO KONTRATU BETEBEHARRAK**
- 22. DATUEN BABESA**
- 23. JABETZA INTELEKTUALA ETA/EDO INDUSTRIALA**

24.KONFIDENTZIALITASUNA ETA SEKRETU BETEBEHARRA

25.ZIGORRAK

26.KONTRATUA LAGATZEA

27.AZPIKONTRATAZIOA

28.KONTRATUAREN ALDAKETAK

29.ERANTZUKIZUNA

30.KONTRATUA ETETEA

31.ONARPENA

32.KONTRATUA SUNTSIARAZTEA

33.ARAUBIDE JURIDIKOA

34.JURISDIKZIOA

I. ERANSKINA ABAL EREDUA

**II. ERANSKINA. LIZITATZAILEAREN NORTASUN DATUAK
JAKINARAZPENETARAKO**

III. ERANSKINA. ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

IV.D ERANSKINA. PROPOSAMEN EKONOMIKOAREN EREDUA

**V. ERANSKINA. LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOAREN ALORREKO
BETEBEHARRAK BETETZEN DIRELA ZIURTATZEN DUEN ERANTZUKIZUNPEKO
ADIERAZPENA**

BALDINTZA EKONOMIKO-ADMINISTRATIBOEN AGIRIA, CASARES-TOMASENE KULTUR ETXEAN IRRATI ZERBITZUA ETA IRRATI ETA KOMUNIKAZIOKO TAILERREN DINAMIZAZIOA ETA IKASTAROAK EMATEA KONTRATATZEKO EGINGO DEN LIZITAZIOA PROZEDURA IREKI BIDEZ ARAUTUKO DUENA

1. KONTRATUAREN XEDEA

Lizitazio honen xedea da zerbitzu-prestazio hauetarako enpresa bat hautatzea: (a) Casares Irratiaren eta bere Irrati Tailerraren kudeaketa eta dinamizazioa; (b) laguntza tekniko eta emankizun-zerrendak kudeatzea, haren jarraitutasuna bermatuta; (c) irati-hedapeneko ikastaroen programak diseinatzea eta horiek Casares-Tomasene Kultur Etxean ematea Donostia Kultura Enpresa Erakunde Publikoarentzat (aurrerantzean DONOSTIA KULTURA), orri honetan eta Baldintza Teknikoen Orrian aurreikusitakoaren arabera.

Horretarako, DONOSTIA KULTURAK enpresa kontratistaren esku jarriko ditu Casares Irratiaren instalazioak (Donostiako Casares-Tomasene Kultur Etxean daudenak), kontratuaren xede diren prestazioak gauzatzeko.

DONOSTIA KULTURAK ahalmena du bestelako mintegiak, tailerrak eta "egile-ikastaroak" antolatzeke, horien eduki eta ezaugarri bereziengatik (DONOSTIA KULTURAK bere aldetik zehaztutako espezialitatea) profesional edo artista jakin batek ematea egokituz jotzen dituenak. Ikastaro horiek, DONOSTIA KULTURAK bere aldetik erabakita, eta dagokion prozeduraren bidez, egilearekin edo esleipendun gertatuko den enpresa berarekin edo beste bat/batzuekin kontrata daitezke.

Kontratuaren xedeak jardura bereizi hauek hartzen ditu barnean:

a) Casares-Tomasene Kultur Etxeko iratiaren (aurrerantzean Casares Irratia) eta bere Irrati Tailerraren kudeaketa eta dinamizazioa.

Kontratuaren xedeak barnean hartzen du Casares Irratiaren eta bere Irrati Tailerraren kudeaketa eta dinamizazioa.

Casares Irratiaren eta bere Irrati Tailerraren kudeaketa eta dinamizazio horrek, halaber, barnean hartuko du DONOSTIA KULTURAREkin batera funtzionamendu-proiektu bat diseinatzea eta abian jartzea. Proiektu hori enpresa lizitatuak beren proposamen teknikoan proposatuko dute, Baldintza Ekonomiko-Administratiboen Orriaren **13. Klausulan** ezarritakoaren arabera.

Kontratuaren esleipendun gertatuko den enpresak proposatutako funtzionamendu-proiektua DONOSTIA KULTURAREkin batera garatu eta egokituko da, kontratua gauzatzean.

Horri dagokionez, adierazi behar da irati-tailerra irati-hedabidearen berri duten pertsonen zuzendutako dagoela, eta esatari gisa prestatzeko eta komunikatzeko gaitasuna hobetzeko interesa dutenei. Irrati-tailerrak aukera ematen du pertsona horiek beren irratia egiteko eta emateko. Enpresa kontratista arduratuko da parte-hartzaileak irati-tailer horretan koordinatzeaz.

Xede horretarako, DONOSTIA KULTURAREN ardura izango dira tailerraren eta dagokion kostuaren publizitatea egiteko kudeaketak; matrikulatutako pertsonen

matrikulazioarekin eta prezioa kobratzearekin lotutako kudeaketak, eta tailerrean egiten diren matrikulazioekin lotutako bestelako tramiteak ere.

b) Laguntza teknikoa eta emankizun-zerrendak kudeatzea, haren jarraitutasuna bermatuta.

Enpresa esleipenduna arduratuko da, halaber, Casares Irratiaren ekipamendu teknikoa maneiatzeari; haren instalazio eta ekipamenduen kontrol-lanak egiteari; emankizun-zerrendak kudeatzeari, eta emankizunaren jarraitutasuna bermatzeari.

c) Irrati-hedapeneko ikastaroen programak diseinatzea eta horiek ematea.

Kontratuaren xedea da, gainera, irratia, komunikazioaren, ahotsaren eta soinuaren esparruan prestakuntza-eskaintza bat diseinatzea eta abian jartzea, Casares-Tomasene Kultura Etxerako, eta esparru horretan ikastaroak ematea.

Ikastaroen programak diseinatzeko zerbitzuak barnean hartzen ditu bai ikasturte zehatzean eskainiko diren ikastaroen eta egutegiaren diseinu orokorra, bai ikastaro bakoitzari dagozkion programen diseinu zehatza.

Dena den, kontratua indarrean sartu eta lehen urtean, ez da egingo eskaini behar diren ikastaroen eta egutegiaren diseinu orokorraren zerbitzua, eta DONOSTIA KULTURAK egingo du diseinua. Lehen urte horretan, DONOSTIA KULTURAK zehaztutako ikastaroen programa zehatzak diseinatuko dira.

DONOSTIA KULTURAK, ikastaro bakoitzaren hasieraren aurretik, matrikulatutako pertsonen zerrenda emango dio enpresa lizitatzailerari. Xede horretarako, DONOSTIA KULTURAREN ardura izango dira ikastaroen eta dagokien kostuaren publizitatea egiteko kudeaketak; matrikulatutako pertsonen matrikulazioarekin eta prezioa kobratzearekin lotutako kudeaketak, baita ikastaroetan pertsonak matrikulatzeko egiten diren tramiteak ere.

Aukera dago ikastaroak eta tailerrak DONOSTIA KULTURAREN mendeko sozietateen instalazioetan egiteko, alegia, Victoria Eugenia SAREN eta San Telmo Museoa SAREN instalazioetan.

Kontratuaren xedek ez ditu barnean hartuko (i) Casares Irratiaren ekipamenduen eta instalazioen konponketak, hirugarren profesional espezializatuen laguntza behar dutenak; (ii) material diskografiko, magnetiko, optiko edo bibliografikoa eta enpresa kontratistak kontratua gauzatzean erabilitako irati-materiala eskuratzea; ezta (iii) ikastaroak ematean erabili behar diren materialak eskuratzea, eta (iv) sustapen-jarduerak egitean sortutako gastuak ere, orri honen **2. klausularen a.2)** letrari jarraikiz. DONOSTIA KULTURARI dagokio kontratatzea, enpresa kontratistak eskatuta edo berak erabakita, beharrezkotzat jotzen badu eta dagozkion prozedurak zainduta, zerbitzu eta hornidura horiek. Zerbitzu eta hornidura horien kostua zuzenean fakturatuko zaio DONOSTIA KULTURARI eta berak ordainduko du.

Enpresa lizitatzailerak hiru jarduera-atal horiek barnean hartzen dituzten eskaintzak aurkeztu beharko dituzte.

2. ERAKUNDE KONTRATATZAILEA ETA KONTRATAZIO ORGANOA

Erakunde kontratatzailea DONOSTIA KULTURA ENPRESA ERAKUNDE PUBLIKOA da (DONOSTIA KULTURA aurrerantzean).

DONOSTIA KULTURA ENPRESA ERAKUNDE PUBLIKOAREN lehendakaria da Kontratazio Organoaren zuzendari-kudeatzailea.

3. ESLEIPEN PROZEDURA

Prozedura ireki bidez esleituko da kontratua, eskaintza ekonomiko abantailatsuena egiten duen lizitatzaillearen alde, orri honetan ezarritako balorazio-irizpideen arabera.

4. ALDAERAK

Ez dira onartzen.

5. KONTRATUKO DOKUMENTAZIOA

Hauek izango dute kontratu izaera, esleipenaren ondoren egiten den kontratuaz gain: Baldintza Ekonomiko-Administratiboen Orri honek, Baldintza Teknikoen Orriak eta esleipendunak aurkezten duen eskaintzak.

Enpresa esleipendunak aipatutako agiri guztiak sinatuko ditu, kontratua formalizatzen denean, guztiak onartzen dituela egiaztatuz.

6. IRAUPENA

Kontratua formalizatu eta biharamunean hasiko da eta 2017ko uztailaren 31 arte iraungo du, eta urtero luza daiteke, erakunde kontratugileak berak bakarrik eskatzen badu.

Luzapenaren jakinarazpena kontratua amaitu baino hiru hilabete lehenago egingo da gutxienez eta nahitaezkoa izango da enpresa esleipendunentzat.

Kontratuaren hasierako iraupenean zehar, zerbitzua, nolanahi ere, ikasturte batean (2016-2017) emango da, irailetik uztailera, biak barnean hartuta.

Erakunde kontratugileak kontratua beste urtebetez luzatzea erabakitzen badu, zerbitzua 2017-2018 ikasturtean emango da (irailetik uztailera, biak barnean hartuta), eta kontratuaren enpresa esleipendunak aurkeztutako eta DONOSTIA KULTURAK baimendutako programaren arabera.

7. URTEKO GEHIENENKO LIZITAZIO AURREKONTUA, GEHIENENKO LIZITAZIO PREZIO UNITARIOA ETA KONTRATUAREN BALIO ZENBATETZIA

7.1. Orri honen 1. klausularen a) eta b) ataletan jasotako zerbitzuak (hots: a) Casares Irratiaren eta bere Irrati Tailerraren kudeaketa eta dinamizazioa eta

b) laguntza teknikoa eta emankizun-zerrendak kudeatzea, haren jarraitutasuna bermatuta).

Enpresa lizitatzailleek beren proposamen ekonomikoan adierazi beharko dute zer urteko preziotan eskainiko dituzten orri honen **1. klausularen a)** eta b) ataletan jasotako zerbitzuak. **Horretarako, urteko gehieneko lizitazio-aurrekontua, BEZ kanpo, urteko 46.000 eurokoa da.**

Urteko gehieneko lizitazio-aurrekontu hori murriztu egin dezakete enpresa lizitatzailleek beren proposamen ekonomikoetan. Edozein kasutan, ezin dira prezio altuagoak eskaini. Prezio horiek gainditzen dituzten guztiak lizitaziotik kanpo geratuko dira.

Enpresa lizitatzailleek eskaintako urteko prezioak barnean hartuko ditu zerbitzu horiek eskaintzeko behar diren gastu guztiak, orri honetan eta Baldintza Teknikoen Orrian aurreikusitakoaren arabera. Ez da *a posteriori* onartuko aldez aurretik azken prezioaren barnean hartu ez diren kontzeptuengatik fakturaziorik. Nolanahi ere, eskaintako urteko prezio horren barruan egongo dira enpresa esleipendunak zein irrati-tailerraren parte-hartzaileek irratiaioak gauzatzeko garatutako kostuak.

Halaber, enpresa lizitatzailleek eskaintako urteko prezioaren barruan egongo dira zerbitzuek berezkoak dituzten kontzeptu guztiei dagozkienak eta zerbitzuak eskaintzeko baliatutako langileekin lotutako gastu guztiak (besteak beste, soldadak eta Gizarte Segurantzak, oporrak eta aparteko ordainsariak, gauez eta jaiegunetan egindako lanak, langileen bajak edo gaixotasunak direla eta egiten diren ordezkapenak, istripu indibidualetarako aseguruak, etab.), baita zerga (BEZa kanpo, kontu sail independente batean adieraziko zaie lizitatzailleei), gainerako zerga (BEZ izan ezik), aseguru, lizentzia, garraio eta joan-etorrien gastu, baimen eta bestelako gastu orokor guztiak ere.

Gainera, enpresa lizitatzailleek eskaintako urteko prezioan sartuta egongo dira, zerbitzuak eskaintzeko enpresa kontratistak erabili behar dituen baliabide, erreminta, ibilgailu, ekipamendu, tresna, ekipo informatiko eta aparatuak.

Enpresa lizitatzailleek kontu sail independente batean adieraziko dute DONOSTIA KULTURAK jasan beharko duen BEZa.

Hala ere, eskaintako urteko prezioak ez ditu barnean hartuko Casares Irratiaren ekipamenduaren eta instalazioen konponketak, hirugarren profesional espezializatuen laguntza behar dutenak; material diskografiko, magnetiko, optiko edo bibliografikoa eta enpresa kontratistak kontratua gauzatzean erabilitako irrati-materiala eskuratzea; ezta sustapen-jarduerak egitean sortutako gastuak ere, orri honen **2. klausularen a.2)** letrari jarraikiz. Orri honen **1. klausularen** arabera, DONOSTIA KULTURARI dagokio kontratatzea zerbitzu eta hornidura horiek, enpresa kontratistak eskatuta edo berak erabakita, beharrezkotzat jotzen badu eta dagozkion prozedurak zainduta. Zerbitzu eta hornidura horien kostua zuzenean fakturatuko zaio DONOSTIA KULTURARI eta berak ordainduko du.

7.2. Orri honen 1. klausularen c) atalean jasotako zerbitzuak (hots, irrati eta komunikazioko ikastaroen programak diseinatzea eta horiek ematea):

Enpresa lizitatzailleek ordu bakoitzari dagokion prezio unitarioa adieraziko dute proposamen ekonomikoan. Xede horretarako, **gehieneko prezio unitarioa, BEZ kanpo, orduko 35 eurokoa da.**

Gehieneko prezio unitario hori murriztu egin dezakete enpresa lizitatzailleek beren proposamen ekonomikoetan. Edozein kasutan, ezin dira prezio altuagoak eskaini. Prezio horiek gainditzen dituzten guztiak lizitaziotik kanpo geratuko dira.

Prezio unitarioak barnean hartzen du programak diseinatzeko zerbitzuaren prezioa.

Enpresa lizitatzailleek eskainitako prezio unitarioak barnean hartuko ditu zerbitzu hori eskaintzeko behar diren gastu guztiak, orri honetan eta Baldintza Teknikoen Orrian aurreikusitakoaren arabera. Ez da *a posteriori* onartuko aldeztu aurretik azken prezioaren barnean hartu ez diren kontzeptuengatik fakturaziorik.

Halaber, enpresa lizitatzailleek eskainitako urteko prezioaren barruan egongo dira zerbitzuek berezkoak dituzten kontzeptu guztiei dagozkienak eta zerbitzuak eskaintzeko baliatutako langileekin lotutako gastu guztiak (besteak beste, soldadak eta Gizarte Segurantzaren, oporrak eta aparteko ordainsariak, gauez eta jaiegunetan egindako lanak, langileen bajak edo gaixotasunak direla eta egiten diren ordezkapenak, istripu indibidualetarako aseguruak, etab.), baita zerga (BEZ izan ezik), aseguru, lizentzia, garraio eta joan-etorrien gastu, baimen eta bestelako gastu orokor guztiak ere.

Gainera, enpresa lizitatzailleek eskainitako prezio unitarioan sartuta egongo dira zerbitzuak eskaintzeko enpresa kontratistak erabili behar dituen baliabide, erreminta, ibilgailu, ekipamendu, tresna, ekipo informatiko eta aparatuak.

Enpresa lizitatzailleek kontu sail independente batean adieraziko dute DONOSTIA KULTURAK jasan beharko duen BEZa.

Hala ere, eskainitako prezio unitarioan ez dago ikastaroak emateko erabili behar den materialaren kostua. Orri honen **1. klausulan** ezarritakoaren arabera, DONOSTIA KULTURARI dagokio ikastaroak emateko erabili behar den materialaren hornidura kontratatzea, enpresa kontratistak eskatuta, dagozkion prozedurak zainduta. Hornidura horren kostua DONOSTIA KULTURARI fakturatuko zaio eta berak ordainduko du.

Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean lizitazioaren deialdiaren eta kontratuaren formalizazioaren iragarkia argitaratzearen ondorioz sortutako gastuak esleipendunak ordaindu beharko ditu.

7.3. Kontratuaren balio zenbatetsia.

Azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategina (aurrerantzean SPKLTB) onartzen duenaren 88. artikulua onorioetarako, kontratuaren balio zenbatetsia **108.000 eurokoa** da.

Balio zenbatetsi hori SPKLTBaren 88.5 a) artikulua arabera kalkulatu da. Hau da, kontuan hartu da aurreko hamabi hiletan balio beragatik esleitutako antzeko kontratuen benetako balioa, kontratua hasi eta ondorengo hamabi hiletarako aurreikusitako kantitateen aldaketen arabera egokituta, eta kontratuak irauten duen denbora guztian zenbatu da, luzapena barnean hartuta.

8. PREZIOA ORDAINTZEA

Hilero egingo da prezioaren ordainketa, dagokion faktura aurkeztu eta DONOSTIA KULTURAK onartu eta gero. Fakturak lizitazio honen espedientearen zenbakia adieraziko du.

Abuztuari buruz aurrerago egindako salbuespenarekin, DONOSTIA KULTURARI eskainitako zerbitzuengatik hilero ordaindu behar zaion prezioa kontzeptu hauen batura izango da:

- Enpresa esleipendunak orri honen **1. klausularen** a) eta b) ataletan jasotako zerbitzuak emateagatik eskainitako urteko prezioa hamaika hiletan zatitzearen ondoriozko zenbatekoa.
- Enpresa esleipendunak, ikastaroak emateko ordu bakoitzari dagokionez, hil horretan benetan emandako zerbitzuari prezio unitarioa aplikatzearen ondorioz lortutako zenbatekoa.

Enpresa kontratistak hileko faktura egin beharko du dagokion hurrengo hilaren hamabost egun naturalean. Fakturan eskainitako zerbitzuak banakatuko dira, aurrez egin ez bada.

Hala ere, eta kontratuaren xede diren zerbitzuak abuztuan eskainiko ez direnez, ez dira fakturatuko eta ordainduko.

DONOSTIA KULTURAK eskainitako zerbitzuen prezioa ordainduko du, zerbitzuak eskaini diren hilabetea amaitu eta hogeita hamar egun naturaleko epean, faktura lehen aipatutako epean bidali bada eta DONOSTIA KULTURAK ontzat eman badu.

9. PREZIOAK BERRIKUSTEA

Ez da prezioen berrikuspenik egingo.

10. PUBLIZITATEA

Lizitazio hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta DONOSTIA KULTURAREN kontratugile-profilean argitaratuko da.

Kontratuaren esleipena DONOSTIA KULTURAREN kontratugilearen profilean argitaratuko da.

Kontratuaren formalizazioa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta DONOSTIA KULTURAREN kontratugile-profilean argitaratuko da.

Profil horretarako sarbidea web-orri honen bidez egingo da: www.donostiakultura.com.

11. BEHIN BETIKO BERMEA

Kontratuaren enpresa esleipendunak, bere gain hartutako betebeharrak beteko dituela bermatzeko, behin betiko berme bakar eta bereizigabe bat eratuko du erakunde kontratugilearen alde, kontratuaren balio zenbatetsiaren % 1ekoa, BEZ kanpo.

Aipatutako erakunde kontratugileak eskaera egiten badu, berme hori diru bihurtuko da.

Eskaintza ekonomiko onuragarriena aurkezten duen enpresa lizitatzailerak hamar egun baliodun edukiko ditu aipatutako bermea eratzeko, Kontratazio Organoaren eskakizuna jaso eta biharamunetik hasita.

SPKLTBaren 96. artikuluan ezarritako edozein modutan era daiteke bermea.

Eskudirutan egiten bada, Kutzako 2095 0611 09 1061519723 kontu korrontean egingo da.

Abal moduan eratuz gero, orri honi **I. eranskin** gisa gehitu zaion ereduaren arabera izango da.

Bermea SPKLTBaren 102. artikuluan xedatutakoaren arabera itzuliko da, berme-epea igaro ondoren eta enpresa kontratistak kontratuko betebeharrak guztiak bete dituenean.

Bermea itzultzeko, erakunde kontratugileak aldeko txostena eman beharko du.

Bermearen gainean enpresa kontratistari eska dakizkiokeen zigorrak edo kalte-ordainak gauzatzen badira, enpresa kontratistak bermea berrezarri edo handitu beharko du dagokion zenbatekoan. Haiek gauzatu eta hamabost egun naturaleko epea izango du. Hala egin ezean, kontratua deuseztatzeko arrazoia izango da.

Kontratuaren aldaketaren baten ondorioz haren prezioa aldatzen bada, behin betiko bermea berregokitu egin beharko da, aldatutako prezio berriarekin beharrezko proportzioa gorde dezan. Hamabost egun naturaleko epea utziko da bermea egokitzeke, enpresa kontratistari aldatzeko erabakia jakinarazten zaionetik hasita.

Klausula honetan aurreikusi gabeko guztian, SPKLTBaren 95. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoa izango da aplikatzekoa.

12. GAITASUN BALDINTZAK

DONOSTIA KULTURArekin kontratatu dezakete jarduteko gaitasun osoa duten eta kontratatzeke debekurik ez duten Espainiako zein atzerriko pertsona natural edo juridikoak.

Ezin izango dute lizitazioan esku hartu kontratuaren zehaztapen teknikoak edo prestaketa-dokumentuak lantzen parte hartu duten enpresek, baldin eta parte-hartze horrek lehia liberako murrizketak eragin baditzake edo gainerako enpresa lizitatzailerikiko tratu pribilegiatua ekar badezake.

Enpresa lizitatzailerak, halaber, kontratuaren xede diren prestazioak egiteko beharrezkoa den lanbide- edo enpresa-gaikuntza eduki behar dute.

Pertsona juridikoek kontratuaren esleipendun izateko aukera izango dute, baldin eta kontratuko prestazioak haiei berez dagozkien helburu, xede edo jarduera-esparrukoak badira, haien estatutuen edo sorrerako arauen arabera.

Nolanahi ere, DONOSTIA KULTURArekin kontratatzeko ahalmena izango dute Europar Batasuneko estatuetakoen enpresa ez espainiarrek, baldin eta ezarrita dauden estatuko legeriaren arabera kasuan-kasuan zerbitzua betetzeko gaituta badaude. SPKLTBaren 58. artikuluan aurreikusitakoa izango da aplikatzekoa.

Espresa horiek ezarrita dauden estatuko legeriak kasuan kasuko zerbitzua egin ahal izateko baimen bereziren bat eskatzen duenean, edo erakunde jakin bateko partaide izatea eskatzen duenean, baldintza hori betetzen dutela frogatu beharko dute.

Europar Batasunetik kanpoko estatuetakoen pertsona fisikoek edo juridikoek jarduteko gaitasuna ziurtatzeko, dagokien estatuan Espainiak duen diplomazia misio iraunkorraren txostena beharko dute, edo enpresaren egoitza dagoen lurraldeko kontsularen bulegoarena. Txosten horren bitartez justifikatu beharko dute atzerriko enpresaren jatorriko estatuak funtsean modu berdintsuan onartzen duela Espainiako enpresek hango administrazioarekiko eta SPKLTBaren 3. artikuluan adierazitakoen pareko sektore publikoko erakunde, organismo edo entitateekiko kontratazioetan parte hartzea.

DONOSTIA KULTURArekin kontratatu dezakete horretarako aldi baterako eratzen diren enpresaburuen elkarteak. Horretarako, ez da beharrezkoa izango elkarte horiek eskritura publikoan gauzatzea kontratua haien alde esleitu arte. SPKLTBaren 59. artikuluan aurreikusitakoa izango da aplikatzekoa.

13. PROPOSAMENAK ETA DOKUMENTAZIOA AURKEZTEA

Proposamenak aurkezteak esan nahi du enpresa lizitatzailerak baldintzarik gabe onartzen dituela Orri hau, Baldintza Teknikoen Orri osoa eta kontratuari lotutako gainerako dokumentazioa, inongo salbuespenik gabe.

Orri hau eta Baldintza Teknikoen Orria kontratugilearen profilaren bitartez eskura daitezke, honako webgune honetatik: <http://www.donostiakultura.com>.

Halaber, dokumentazio hori DONOSTIA KULTURAREN bulegoetan aztertu ahal izango da (Erregina Erregeordearen kalea, 8 / 20003 Donostia), astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 14:00etara (udan, 9:00etatik 13:30era), iragarkia kontratugilearen profilean argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera eta proposamenak aurkezteko epearen azken egunera arte.

Lizitazio honetan parte hartzeko, enpresa lizitatzailerak **HIRU GUTUN AZAL ITXI (A, B eta C)** aurkeztuko dituzte DONOSTIA KULTURAREN bulegoetan, erregistro-ordutegiaren barruan (astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 14:00etara; udan, 9:00etatik 13:30era), horretarako Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen diren lizitazio-iragarkian ezarritako epearen barruan. Gutun-azal horietan gero aipatuko den dokumentazioa sartuko dute eta guztietan jarriko dute xede den kontratazioa, enpresaren izena, proposamena sinatzen duenaren izen-abizenak eta zer izaeraz egiten duen, telefono-zenbakia eta fax-zenbakia eta helbide elektronikoa. Halaber, jakinarazpenak jasotzeko lehenesten den bidea adieraziko da, orri honen **II. eranskineko** ereduaren arabera.

Epearen azken eguna larunbata, igandea edo jaieguna bada, epea hurrengo egun baliodunera arte luzatuko da.

Ordutegi muga hori ez da ezarriko proposamenak postaz bidaltzen badira. Kasu horretan, proposamenak aurkezteko azken egunaren edozein ordutan aurkeztu ahal izango dira; betiere, ondoren datorren paragrafoan adierazitako baldintzak betetzen badira.

Enpresa lizitatzailleek proposamena postaz bidaltzen baldin badute, bidali duten eguna egiaztatu beharko dute postetxean, eta eskaintza posta bidez bidali dutela adierazi beharko diote DONOSTIA KULTURARI telex, fax (zenbaki honetara: 943 48 39 00) edo egun berean presazko telegrama bat bidalita. Proposamena bidali izana posta elektronikoaren bidez ere adieraz daiteke helbide honetara: (donostiakultura@donostia.eus). Posta elektronikoaren bidez jakinarazteak baliorik izango badu, nahitaezkoa izango da jasota egotea bai jakinarazpenak bidali izana, bai jaso izana, bai haien eduki osoa; eta igorlea eta hartzailea modu fidagarrian identifikatzea.

Halakoetan, kopia bat inprimatu eta erregistratuko da, gero espedienteari eransteko.

Bi baldintza horiek betetzen ez badira, jakinarazpenean adierazitako epea igaro ondoren jaso ezean, dokumentazioa ez da onartuko.

Adierazitako dataren ondoren 10 egun natural igaro eta proposamena hartu ez bada, ez da inola ere onartuko.

Gutun azal bakoitzak ondoren zerrendatuko diren dokumentuak edukiko ditu, eta bertan dauden dokumentuen zerrenda zenbakitua jasoko du.

A gutun-azala. "KONTRATATZEKO GAITASUNA"

Enpresa lizitatzailleek kontratatzeiko gaitasuna ziurtatzeko gutun-azal bat aurkeztuko dute, agiri hauekin:

1. Enpresa lizitatzailleak eta, hala badagokio, bere ordezkariak, jarduteko gaitasuna duela ziurtatzen duten agiriak:

- Pertsona juridikoak diren enpresaburuen kasuan, enpresako eskritura edo sorrera agiria, Estatutuak edo sorrera egintza aurkeztu behar dira jarduteko gaitasuna ziurtatzeko (dokumentu horietan zehazten dira jarduera arautzen duten arauak). Dokumentu guztiak dagokien erregistro publikoan behar bezala inskribatuta egongo dira, pertsona juridikoaren motaren arabera dagokionean.

- Europar Batasuneko estatuetako enpresaburu ez espainiarren jarduteko ahalmena frogatzeko dokumentu hauek aurkeztuko dira: ezarrita dauden estatuko legeriaren arabera dagokien erregistroko inskripzioa, edo zinpeko aitorpena edo ziurtagiria, aplikatzekoak diren Europako Erkidegoko xedapenen arabera.

- Gainerako enpresaburu atzeritarren kasuan, jarduteko gaitasuna ziurtatzeko, dagokien estatuan Espainiak duen diplomaziako misio iraunkorraren edo enpresak egoitza duen lurralde-esparruko kontsuletzeko bulegoaren txostena aurkeztuko da. Txosten horren bitartez justifikatu beharko dute atzerriko enpresaren jatorriko estatuak

funtsean modu berdintsuan onartzen duela Espainiako enpresek hango administrazioarekiko eta SPKLTBaren 3. artikuluan adierazitakoen pareko sektore publikoko erakunde, organismo edo entitateekiko kontratazioetan parte hartzea.

- Pertsona fisikoak diren enpresaburuen jarduteko ahalmena frogatzeko Nortasun Agiri Nazionala aurkeztuko dute, edo dagokien estatuko agiri baliokidea aurkeztuko da.

- Ordezkarri gisa aurkezten diren pertsonak, edo proposamenak beste norbaiten izenean sinatzen dituztenek, nortasun agiri nazionalaren kopia aurkeztuko dute, bai eta horretarako ahalorde askietsia ere. Enpresa pertsona juridikoa bada, Merkataritza Erregistroan inskribatuta egongo da ahalordea, Merkataritza Erregistroaren Araudiko 94. artikuluan aurreikusitakoak horrela eskatzen badu, edota, hala badagokio, dagokion erregistro publikoan aurreikusitakoak eskatzen badu, dagokion pertsona juridiko motaren arabera.

- Aldi baterako elkarte batean bilduta esku hartu nahi duten enpresaburuek elkartearen eratzeko izenak eta ezaugarriak eta bakoitzaren partaidetza adierazi beharko dituzte. Esleipendun suertatuz gero, aldi baterako enpresa-elkartea eratzeko konpromisoa hartzen dutela ere adierazi beharko dute. Aldi baterako elkarte batean bilduta esku hartu nahi duten enpresaburuak solidarioki behartuta egongo dira, eta elkartearen ordezkari edo ahaladun bakarria izendatu beharko dute. Ordezkarri edo ahaladun horrek kontratuaren ondorio diren eskubideak baliatzeko eta betebeharrak betetzeko behar besteko ahalordeak izango ditu kontratua iraungi artean. Dena dela, ahalorde erkidetuak ere eman ahal izango dituzte zenbateko handiko kobrantzak eta ordainketak egiteko.

Aurkeztuko diren dokumentu horiek guztiak jatorrizkoak edo behar bezala konpultsatutako kopia izango dira.

2. SPKLTBaren 60. artikuluan kontratuak egiteko ezartzen diren debekuetako batean ere ez dagoela adierazten duen lizitatzailaren erantzukizunpeko adierazpena, **III. eranskinean** azaltzen den ereduaren arabera.

Lizitatzailak indarrean dauden xedapenetan ezartzen diren zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak ordainduta izatearen berariazko erantzukizunpeko adierazpena barnean hartuko da. Eskaintza ekonomiko onuragarriena egiten duen enpresa lizitatzailak aipatutako baldintza betetzen duela ziurtatuko du, eta horretarako hamar egun balioduneko epea edukiko du, DONOSTIA KULTURAK xede horrekin bidaltzen dion errekerimendua jaso eta biharamunetik hasita.

Dokumentu horrek lizitatzailak lizitzeko, esleitzeko eta gauzatzeko prozesuaren ondorioz sortutako datu guztien gardentasun instituzionala borondatez onartzeari buruzko adierazpena hartuko du barnean (esleipendun gertatuz gero), amaitu arte.

3. Enpresaburuaren kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa modu hauetako baten edo gehiagoren bitartez egiaztatu ahal izango da:

- Finantza-erakundearen adierazpen egokiak.

- Merkataritza Erregistroan edo dagokion erregistro ofizialean aurkezturiko urteko kontuak. Erregistro ofizialetan kontuak aurkezteko obligazioa ez duten enpresaburuek, egiaztatze modu alternatibo gisa, behar bezala legeztatutako kontabilitate-liburuak aurkeztu ditzakete.

- Negozioen bolumen globalari eta, hala badagokio, kontratuaren helburuari dagokion jardueren esparruko negozioen bolumenari buruzko adierazpena. Enpresaburuak jarduerak sortu edo hasi zituen dataren arabera, gehienez eskura dauden azken hiru ekitaldiei loturik egongo da adierazpen hori, baldin eta negozioen bolumen horren erreferentziak eskura badituzte.

Justifikaturiko arrazoi batengatik eskaturiko erreferentziak ezin baditu aurkeztu enpresaburuak, kontratazio-organoak egokitzat jotzen duen beste edozein dokumentu aurkeztuz kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa egiaztatzeko baimena emango dio.

4. Atzerriko enpresek berariazko adierazpena aurkeztu beharko dute. Bertan, kontratuaren ondorioz zuzenean edo zeharka sor daitekeen gorabehera orotarako, Espainiako edozein mailatako epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren mende jarriko direla eta, hala badagokio, atzerriko jurisdikzio-foruari uko egiten diotela adieraziko dute.

5. Jakinarazpenak jasotzeko lehentasunezko bitartekoa aukeratzea, agiri honen **II. eranskineko** ereduaren arabera.

6. Laneko arriskuen prebentzioaren alorreko betebeharrak betetzeari buruzko erantzukizunpeko adierazpena, **V. eranskinaren** arabera.

Oharrak:

(i) Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistro Ofiziala arautzen duen otsailaren 3ko 12/1998 Dekretuak araututako Kontratisten Erregistroan edo Estatuko Lizitatzailerik eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean inskribatuta dauden enpresa lizitatzailerik, bestalde, erregistroaren ardura duen legegileak emandako ziurtagiriaren kopia konpultsatua aurkez dezakete, 1. atalean aipatutako dokumentazioaren ordeiz. Inskripzio-ziurtagiriarekin batera, lizitatzailerik ziurtagiriak adierazitakoa aldatu ez dela adierazten duen erantzukizunpeko adierazpen sinatu bat aurkeztuko du.

(ii) DONOSTIA KULTURAK eskubidea du lizitatzailerik aurkeztutako informazioa egiazkoa dela ziurtatzeko beharrezkotzat jotzen dituen egiaztapen-lanak egiteko edo dokumentazioa eskatzeko

(iii) Atzerriko enpresek dokumentazio guztiaren gaztelaniarako edo euskararako itzulpen ofiziala aurkeztuko dute.

B gutun azala. "PROPOSAMEN TEKNIKOA"

Enpresa lizitatzailerik proposamen teknikoari buruzko gutun-azal bat aurkeztuko dute, dokumentu hauek bilduko dituenak:

- Irratiaren eta tailerraren funtzionamendu-proiektua, hau barnean hartuta:

- Irratiaren eta tailerraren kudeaketaren eta antolakuntzaren definizio xehatua. Eta iratiaren eta tailerraren diagnostiko bat.

Halaber, kontratua gauzatzeko atxikiko dituen enpresako langileen funtzioak adierazi beharko ditu, eta horiek betetzeko modua. Gainera, langileek enpresaren gainerako antolakuntzarekin zer erlazio duten adieraziko du eta, bereziki, enpresak bere langileekiko dituen enpresa eta zuzendaritzaren arloko maila

orotako erantzukizunak. Hori guztia, gainera, langileen legez kanpoko lagapen bat egotea erraztu dezaketen ekintzak edo egoerak ekiditeko funtsezko xedearekin.

- Web-orria sustatzeko eta kudeatzeko jarduera-plana.

Web-orria sustatzeko eta kudeatzeko jarduera-plan hori ez da loteslea izango DONOSTIA KULTURArentzat, Baldintza Teknikoen Orriaren **2. klausularen** a.2) letraren arabera.

- Laguntza teknikoaren eta emankizun-zerrenden kudeaketaren deskribapena, eta haren jarraitutasuna bermatzeko metodologia.

Kontratuaren esleipendun gertatuko den enpresak proposatutako funtzionamendu-proiektua DONOSTIA KULTURArekin batera garatu eta egokituko da, kontratua gauzatzean.

- Ikastaroen programa orokorraren ariketa simulatua, baita ikasturte baterako ikastaroen programa zehatzenak ere.

Halaber, ikastaroen programa zehatzek gutxienez jarraian aipatutako alderdiak hartuko dituzte barnean:

- Helburuak
- Edukia
- Metodologia, ebaluazio-sistemak
- Materiala (deskribapena eta balioaren zenbatespena)
- Ikastaroaren kostua
- Ikastaro elebidunetan aplikatuko diren irizpideak
- Programak zer data eta ordutegietan egingo diren
- Interesgarriak izan daitezkeen beste datu batzuk

Halaber, alderdi praktikoak eta teorikoak barnean hartuko dira, oinarritzko mailetatik aurreratuenetara, eta haur eta gazteentzako eskaintza espezifikoak egingo da. *A priori* ariketa bat izango da, hipotetikoak, eta bere edukia ez da inola ere loteslea izango DONOSTIA KULTURArentzat.

- Giza baliabideak.

Lizitazio honen oinarria da kontratua gauzatzeko atxikitako langileen kalitateak eragin adierazgarria izan dezakeela kontratua gauzatzean, zerbitzu intelektualei buruzko kontratuak izateagatik.

Testuinguru horretan, kontratua gauzatzeko giza baliabideak atxikitzea eskain daiteke.

Gutxienez zerbitzuaren pertsona koordinatzailearen figura eta orri honen **21. klausulak** aipatzen duen arduradun teknikoaren lanak egingo dituen pertsonarenarena aurreikusi beharko dira.

Konpromiso hori baloratu egin daiteke hurrengo klausulan aurreikusitako baldintzak kontuan hartuta.

Lizitatzailleak arreta berezia jarri beharko du gutun-azal honetan sartu behar den dokumentazioa prestatzean, eta edukiari eta formatuari buruz emandako jarraibideetara egokituko da. Era berean, ezingo dira egin eskaintzaren alderdi ekonomikoak orientatu edo jakinaraziko dituzten erreferentziak.

Printzipio horien aurkako eskaintzak ezetsi egingo dira eta prozeduratik kanpo geratuko dira.

DONOSTIA KULTURAK eskubidea du lizitatzailleek aurkeztutako informazioa egiazkoa dela ziurtatzeko egoki deritzon egiaztapen-lanak egiteko edo beharrezkotzat jotzen duen dokumentazio osagarria eskatzeko.

Apirilaren 7ko 3/2016 Legean, zenbait klausula sozial kontratazio publikoan sartzekoari buruzkoan xedatutakoa betetzeko, ohartarazten da kontratuak indarrean diren legezko, erregelamenduzko eta konbentziozko xedapenak betetzen dituela, baita lanaren, Gizarte Segurantzaren eta laneko segurtasun eta osasunaren arloan aplikatzekoak direnak ere.

Testuinguru horretan, atal honetan aurreikusitako proposamen teknikoan, lizitatzailleek kontratuaren xede den jardura egiten duten langileei aplikatzekoa izango den hitzarmen kolektiboa adieraziko dute, esleipendun gertatuz gero.

Gutun-azal honen dokumentazioa jatorrizkoa edo kopia izan daiteke. Hala ere, **DONOSTIA KULTURAK**, eskaintzak baloratzeko orduan, enpresa lizitatzailleei jatorrizkoak eskatu ahal izango dizkie, aurkeztutako dokumentuen egiazkotasuna egiaztatzeko.

Ez da baloratuko gutun-azal honetan eskatzen diren elementu guztiak ez dituen eskaintzarik.

C gutun azala. "PROPOSAMEN EKONOMIKOA"

Enpresa lizitatzailleek orri honi **IV.D eranskin** gisa eranstean zaion ereduaren arabera aurkeztu beharko dute beren proposamen ekonomikoa.

Proposamen ekonomikoa makinaz idatzita aurkeztuko da osorik, eranskinik, zuzenketarik edo ezabaketarik gabe. Dokumentu horietan aldaketarik, hutsunerik edo akatsik egotea proposamena atzera botatzeko arrazioa izan daiteke.

DONOSTIA KULTURAK, esleipena egin aurretik edo ondoren, eta kontratuaren indarraldian, A, B eta C gutun-azalean aurkeztutako dokumentuen egiazkotasuna egiaztatu ahal izango du. Enpresa kontratistak aurkeztutako datuetan edo zirkunstantzietan faltsutasunik aurkitzen bada, kontratua baliogabea izan daiteke, enpresa kontratistari egoztekoak diren arrazioen ondorioz kontratua ez betetzeagatik.

Kontratua esleitu eta urtebeteko epea igarotakoan, **DONOSTIA KULTURAK** enpresa lizitatzailleek aurkeztutako dokumentazioa suntsitzea erabaki dezake, baldin eta lizitatzailleek ez badute jaso.

14. BALORAZIO IRIZPIDEAK

Balorazio-irizpideak, dagokien haztapenaz adierazita, hauek dira:

1. Proposamen teknikoak:

70 puntu gehienez ere.

- Irratiaren eta tailerraren funtzionamendu-proiektuari dagokionez:

- Irratiaren eta tailerraren funtzionamendu-proiektuaren egokitzapena eta egokitasuna, kudeaketari eta antolakuntzari eta egindako diagnostikoari dagokionez. **15 puntu gehienez ere.**
- Web-orria sustatzeko eta kudeatzeko jarduera-plana. **15 puntu gehienez ere.**
- Laguntza tekniko eta emankizun-zerrenden kudeaketa, eta haren jarraitutasuna bermatzeko metodologia. **10 puntu gehienez ere.**

- Ikastaroen programa orokorraren ariketa simulatua, baita ikasturte baterako ikastaroen programa zehatzenak ere. **15 puntu gehienez ere.**

- Lizitatzailleak orri honen **1. klausularen** a) eta b) ataletan jasotako zerbitzuak (hots: a) Casares Irratiaren eta bere Irrati Tailerraren kudeaketa eta dinamizazioa eta laguntza tekniko eta emankizun-zerrendak kudeatzea, haren jarraitutasuna bermatuta) gauzatzeko atxikitako giza baliabideen kualifikazioa eta egokitasuna baloratuko dira. Kualifikazio eta egokitasun horretan, gainera, kontuan izango dira kontratua gauzatzean garatu behar diren jarduerekin lotutako arloetako titulazioak eta prestakuntza, hala nola sektorea eta Donostiako kultura- eta elkarre-mugimendua ezagutzea. **15 puntu gehienez ere.**

2. Proposamen ekonomikoa:

30 puntu gehienez ere.

Proposamen ekonomikoari dagozkion puntuak honela banatuko dira:

- Orri honen **1. klausularen** a) eta b) ataletan jasotako zerbitzuak (hots: a) Casares Irratiaren eta bere Irrati Tailerraren kudeaketa eta dinamizazioa eta b) laguntza tekniko eta emankizun-zerrendak kudeatzea, haren jarraitutasuna bermatuta). **24 puntu gehienez ere.**

Puntuazioa proportzioan emango da balio hauen artean:

1. Gehieneko lizitazio-aurrekontua.
2. Hauen arteko kantitaterik txikiena:
 - a) Eskaintza txikiena.
 - b) Gehieneko lizitazio-aurrekontua ken % 20.
 - c) Eskaintako batez besteko prezioa ken % 10.

Honela baloratuko da: orri honen **7. klausulan** finkatutako gehieneko lizitazio-aurrekontuaren prezio baliokidea eskaintzen duenak 0 puntu lortuko ditu, eta gainerakoei formula matematiko hau aplikatuko zaie:

$$P_{tn} = \frac{(L_p - E_n)}{(L_p - E_l)} \times P_{tu.}$$

(honela ulertuta: Lp = Gehieneko lizitazio-aurrekontua; Ptu = Gehieneko puntuazioa; El = Preziorik baxuena 2. atalaren arabera; En = Lizitatzailerik bakoitzaren eskaintza ekonomikoaren prezioa; Ptn = Lizitatzailerik bakoitzak lortutako puntuazioa).

Proposamen desagoki edo irregular bat antzemanaz gero, eskaintza egin duen lizitatzailerik audientzia emango zaio, eskaintzaren balorazioa justifikatzeko eta baldintzak zehazteko.

Horretarako, neurritz kanpoko edo anormaltzat har daitezke aurkeztutako eskaintza guztien batez besteko aritmetikoa baino 25 puntu portzentual edo gehiagoko aldea baino txikiagoa duten eskaintzak.

- Orri honen 1. klausularen c) atalean jasotako zerbitzuak (hots, irrati eta komunikazioko ikastaroen programak diseinatzea eta horiek ematea). 6 puntu gehienez ere.

Puntuazioa proportzioan emango da balio hauen artean:

1. Gehieneko lizitazio-prezio unitarioa.
2. Hauen arteko kantitate txikiena:
 - a) Eskaintza txikiena.
 - b) Gehieneko lizitazio-prezio unitarioa ken % 20.
 - c) Eskaintzaren batez besteko prezioa ken % 10.

Honela baloratuko da: orri honen **7. klausulan** finkatutako gehieneko lizitazio-prezioaren baliokidea den prezioa eskaintzen duenak 0 puntu lortuko ditu, eta gainerakoei formula matematikoa hau aplikatuko zaie:

$$Ptn = \frac{(Lp - En)}{(Lp - El)} \times Ptu.$$

(honela ulertuta: Lp = Gehieneko lizitazio-aurrekontua; Ptu = Gehieneko puntuazioa; El = Preziorik baxuena 2. atalaren arabera; En = Lizitatzailerik bakoitzaren eskaintza ekonomikoaren prezioa; Ptn = Lizitatzailerik bakoitzak lortutako puntuazioa).

Proposamen desagoki edo irregular bat antzemanaz gero, eskaintza egin duen lizitatzailerik audientzia emango zaio, eskaintzaren balorazioa justifikatzeko eta baldintzak zehazteko.

Horretarako, neurritz kanpoko edo anormaltzat har daitezke aurkeztutako eskaintza guztien batez besteko aritmetikoa baino 25 puntu portzentual edo gehiagoko aldea baino txikiagoa duten eskaintzak.

15. EBALUAZIO BATZORDEA

Proposamenak baloratzeko Ebaluazio Batzordea honako kide hauek osatuko dute:

- DONOSTIA KULTURAKo Kontratazioko ordezkari bat.

- DONOSTIA KULTURAKo Kultur Ekintzako bi ordezkari.

16. PROPOSAMENAK IREKITZEA

Ebaluazio Batzordeak A gutun azaleko ("Kontratatzeko gaitasuna") dokumentazioa kalifikatuko du lehenik eta behin, garaiz eta forman. Aurkeztutako dokumentazioan konpon daitekeen akatsik edo ez-egiterik antzemanaz gero, hiru egun balioduneko epea utziko da, gehienez ere, enpresa lizitatzailleak akats edo ez-egite horiek konpontzeko.

Jarraian, B gutun-azala irekiko da, proposamen tekniko biltzen duena, berori aztertu eta baloratzeko.

C gutun-azaleko proposamen ekonomikoen irekiera publikoki egiaztatuko da eta, xede horrekin, proposamen publikoak irekitzeko egintza publikoaren data, ordua eta lekua jakinaraziko zaie onartutako lizitatzaille guztiei, **II. eranskinaren** arabera jakinarazpenak egiteko aukeratu duten bitartekoa erabilita. Kontratugilearen profilean argitaratuko da guztia (www.donostiakultura.com) 48 ordu lehenago gutxienez.

Proposamen ekonomikoak irekitzeko egintza publikoaren hasieran, proposamen teknikoaren balorazioaren emaitzak jakinaraziko zaizkie bertaratu diren enpresa lizitatzaillei, betiere horrela egiteko eskatzen badute.

Proposamen ekonomikoak irekitzeko egintza publikoa amaitzean, proposamenak aztertu eta baloratuko dira.

Ebaluazio Batzordeak baztertu egingo ditu Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra (aurrerantzean APKLEO) onartzen duen urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren 84. artikuluan aurreikusitako arrazoietan nahastuta dauden proposamenak. Halaber, aurkeztu diren proposamenen zerrenda bidaliko dio Kontratazio Organoari, handienetik txikienera sailkatuak, eta **14. klausulan** ezarritako balorazio-irizpideak kontuan hartuta. Era berean, ekonomikoki eskaintza abantailatsuena zein den adieraziko du.

Proposamena egin aurretik, esleipenari buruz nahi beste txosten tekniko eskatu ahal izango ditu.

Ebaluazio Batzordearen proposamena txosten juridikoaren pean jarriko da.

Ebaluazio Batzordeak proposamen ekonomiko abantailatsuena identifikatzeak ez du eskubiderik sortzen proposatutako lizitatzaillearen alde.

17. KONTRATUA ESLEITZEA

Esleipenerako enpresa lizitatzaila aukeratzeko, Kontratazio Organoa bat etorriko da, oro har, Ebaluazio Batzordeak egindako proposamenarekin. Aitzitik, Kontratazio Organoak proposamenetik bereizteko erabakia arrazoitu beharko du eta, hala badagokio, proposamenak behin betiko sailkatuko ditu.

Kontratazio Organoak jarraian adieraziko den dokumentazioa eskatuko dio eskaintza ekonomiko abantailatsuena egin duen lizitatzailari, eta lizitatzailleak hamar egun

balioduneko epea edukiko du aurkezteko, horretarako jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita:

- Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela justifikatzen duten agiriak.

Esleipendunak EJZn, kontratuaren xede den epigrafean, alta hartu duela frogatu beharko du. Horretarako, alta-agiria aurkeztu beharko du, une horretako ekitaldiari baldin badagokio, edo EJZren azken ordainagiria, gainerako kasuetan. Nolanahi ere, aipatutako zergan baja hartu ez dela ziurtatzen duen erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztuko da.

- Kontratua gauzatzeko hitz emandako giza baliabideak benetan esleitu izanaren egiaztagiria.

Kontratuari atxikitzeko hitzemandako giza baliabideei dagokienez, hautatutako lizitatzailerak dokumentazio hau aurkeztu beharko du:

- Orri honen **1. klausularen** a) eta b) ataletan jasotako zerbitzuak gauzatzeko atxikitako talde osoaren izenak identifikatzea, eta curriculum vitae-aren fitxak, hau jasoko dutenak:

- Titulazio akademiko ofiziala.
- Esperientzia dagokion esparruan.

- Giza baliabide horiek guztiak benetan izatea egiaztatzeko dokumentazioa.

DONOSTIA KULTURAK lizitatzailerak aurkeztutako informazioa egiazkoa dela ziurtatzeko egoki deritzon egiaztapen-lanak egiteko edo beharrezkotzat jotzen duen dokumentazioa eskatzeko eskubidea erreserbatuta du.

Abenduaren 13ko Legean, Datu Pertsonalak Babesteari buruzkoan (aurrerantzean DBLO) aurreikusitakoaren arabera, eta dokumentazio horretan giza baliabideei buruz jasotako informazioaren izaera kontuan izanda, ohartarazten da (i) datuak biltzea eta erabiltzea hautatutako lizitatzailerak egindako datu pertsonalen tratamendua izango dela, tratamenduaren arduradun gisa; eta (ii) datuak Kontratazio Organoari entregatzea, klausula honetan ezarritakoa betez, lizitatzailerak horrek lagatzaile gisa egindako datu-lagapena izango dela.

Horretarako, hautatutako lizitatzailerak berarentzat DBLOan xedatutakoaren ondorioz sortutako betebeharrak bete beharko ditu, aurreko paragrafoan aipatutako datuak tratatzeari eta lagatzeari dagokionez. Bereziki, eta tratamenduaren arduradun gisa zaindu behar dituen edozein betebehar gorabehera, hautatutako lizitatzailerak DBLOaren 11. artikuluan aurreikusitakoa bete beharko du eta, bere erantzukizunpean, datu-lagapen hori gaitzen duen interesdunen baimen informatua lortu beharko du. Baldintza hori Kontratazio Organoaren aurrean egiaztatu beharko du behar bezala, lizitatzailerak eskatzen zaionean.

- Orri honen **11. klausulan** aurreikusitako behin betiko bermea eratu dela ziurtatzen duen egiaztagiria.

- Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean lizitazioaren iragarkia argitaratzeagatik sortutako gastuak ordaindu izana ziurtatzen duen egiaztagiria.

- Hala badagokio, aldi baterako enpresa-elkarte gisa legez eratu izana ziurtatuko da. Aldi baterako enpresa-elkartearen arduradun edo ahalzun bakarra izendatuko da eta nahikoa ahalmen edukiko du kontratua iraungi bitartean eskubideak gauzatzeko eta betebeharrak betetzeko.

Eskatutako guztia epearen barruan betetzen ez bada, enpresa lizitatzailerak bere eskaintza atzera bota duela ulertuko da; kasu horretan, dokumentazio bera eskatuko zaio hurrengo enpresa lizitatzailari, eskaintzak sailkatu diren ordenan.

Kontratazio Organoak aipatutako dokumentazioa jaso eta hurrengo bost egun baliodunetan erabakiko du kontratuaren esleipena; gehienez ere bi hileko epea edukiko du, proposamenak irekitzen diren egunetik hasita.

Esleipena ebazpen arrazoitu bidez erabakiko du Kontratazio Organoak, eta lizitatzailari jakinaraziko zaie, orri honen **II. eranskin**eko ereduaren arabera eta, aldi berean, DONOSTIA KULTURAKo kontratugilearen profilean argitaratuko da.

18. KONTRATUA BURUTZEA ETA FORMALIZATZEA

Kontratua formalizatzean burutuko da.

Kontratua dokumentu pribatuan formalizatuko da gehienez 15 egun balioduneko epearen barruan, esleipenaren jakinarazpena jasotzen den egunetik kontatzen hasita. Kontratuak edozein erregistro publikotara sartzeko balioko du.

Esleipendunak, hala ere, kontratua eskritura publiko bilakatu dadin eska dezake; kasu horretan, bere kontura izango dira sortutako gastuak.

Kontratuaren formalizazioa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta DONOSTIA KULTURAKen kontratugile-profilean argitaratuko da. Argitalpena kontratua esleitzen denetik berrogeita zortzi egun naturaleko epean egingo da, gehienez ere.

Enpresa kontratistaren kontura izango dira Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako kontratua formalizatzeko iragarkien gastuak.

Kontratistari egoztekoak diren arrazoiengatik, kontratua adierazitako epearen barruan formalizatu ez bada, DONOSTIA KULTURAK hurrengo lizitatzailari eska diezaioke orri honen **17. klausulan** eskatutako dokumentazioa, eta hamar egun balioduneko epea utziko zaio dokumentazio hori aurkezteko.

19. KONTRATUAREN ARDURADUNA

Kontratazio Organoak kontratuaren arduraduna izenda dezake. Arduradun horren lana izango da kontratuaren gauzatzea gainbegiratzea eta hitzartutako prestazioa behar den bezala eskaintzen dela ziurtatzeko erabakiak hartzea eta jarraibideak ematea, berari dagozkion eskumenen barruan.

Kontratuaren arduraduna pertsona fisiko edo juridiko bat izan daiteke, DONOSTIA KULTURAREN barrukoa edo kanpukoa.

Enpresa kontratistak nahitaez beteko ditu kontratuaren arduradunak ematen dituen jarraibideak.

20. KONTRATUA GAUZATZEA

Hain zuzen ere, baldintza hauen arabera gauzatuko da kontratua:

- Kontratuak indarrean diren legezko, erregelamenduzko eta konbentziziozko xedapenak betetzen ditu, baita lanaren, Gizarte Segurantzaren eta laneko segurtasun eta osasunaren arloan aplikatzekoak direnak ere.

Testuinguru horretan, proposamen teknikoan, lizitatzailerik kontratuaren xede den jarduera egiten duten langileei aplikatzekoa izango den hitzarmen kolektiboan adieraziko dute, esleipendun gertatuz gero. Kontratuaren xede den jarduera egiten duten langileei aplikatzekoa izango den hitzarmen kolektiboari buruzko informazioa esleipen-ebazpenean sartuko da eta kontratugilearen profilean argitaratuko da.

Gainera, esleipenduna behartuta egongo da, kontratua esleitutakoan, langile horiei benetan aplikatuko zaizkien lan-baldintzei buruz eskatuko den informazio guztia ematera.

Esleipendunak, kontratua gauzatzen den bitartean, langileari dagokion lanbide-kategoriari aplikatzekoa den hitzarmen kolektiboan jasotako soldata ordaindu beharko du, eta ordaindu behar den soldata ez da inoiz izango hura baino txikiagoa.

Atal honetan xedatutakoa gauzatze-baldintza berezia eta funtsezko betebeharra da SPKLTBaren 223. f) artikuluan aurreikusitako ondorioetarako. Urratuz gero, DONOSTIA KULTURAK kontratua bertan behera uzteko eskubidea du.

- Kontratua enpresa kontratistaren arrisku eta menturaz gauzatuko da.

- Kontratua gauzatzeko kontuan hartuko dira kontratuaren edukia eta baldintzak, Baldintza Ekonomiko-Administratiboen Orria, Baldintza Teknikoen Orria eta enpresa kontratistak aurkeztutako eskaintza, eta DONOSTIA KULTURAK ematen dituen jarraibideen arabera egingo da.

- DONOSTIA KULTURAK kontratu-betebeharrak zuzen betetzen direla eta guztiak behar den bezala gauzatzen direla kontrolatu, egiaztatu eta gainbegiratu dezake, edozein unetan eta edozein bitarteko baliatuz.

Xede horrekin, DONOSTIA KULTURAK egokitzen jotzen dituen kanpo-laguntzak jaso ditzake, kontratu-betebeharrak behar bezala betetzen direla eta lanak kalitate-maila egokiaz egiten direla egiaztatzeko edo ikuskatzeko.

Enpresa kontratistak DONOSTIA KULTURAK zerbitzuekin lotuta eskatzen dizkion datu guztiak aurkeztuko ditu, beharrezkoa den laguntza guztia eskainiko du, kostu gehigarririk gabe, eta, zenbait kasutan, kontratatutako zerbitzuen lan, administrazio, edo bestelako alorretako dokumentazioa emango du.

Enpresa kontratistak ez du oztoporik jarriko DONOSTIA KULTURAK egiten dituen ikuskapen- eta kontrol-lanetan.

Hala ere, DONOSTIA KULTURAK edozein ez-betetze edo erreparo ikusten badu, zerbitzuaren koordinatzaileari jakinaraziko zaio zuzenean. Azken batean, hari dagozkio zerbitzua eskaintzen duten langileak antolatzeke, gainbegiratzeko edo hala badagokio, zigortzeko ahalmenak.

- Langile guztiak enpresa kontratistaren mendekoak dira. Enpresa kontratistarenak dira bere enpresa-izaerari dagozkion eskubideak eta betebeharrak eta ezin izango zaio DONOSTIA KULTURARI erreklamaziorik egin dagozkion lan-harremanengatik edo gainerako betebeharrengatik.

Enpresa kontratista izango da arduradun bakarra zerbitzua gauzatzeko ardura duten langileekin lotutako edozein ezbehar edo erreklamazioren aurrean (judiziala edo estrajudiziala). DONOSTIA KULTURAK ez du lan-erantzukizunik (laneko segurtasun, higieine eta osasunarekin lotutakorik), ezta Gizarte Segurantzarekin edo zerga-esparruarekin lotutako erantzukizunik ere, enpresa kontratistak zuzenean edo zeharka hartzen dituen betebeharrak dagokienez. Era berean, enpresa kontratistak bere gain hartuko ditu zerbitzua egitean gertatutako ezbeharren ondoriozko erantzukizunak.

- Enpresa kontratistak DBLOan eta hura garatzeko araudiak ezarritako betebeharrak beteko ditu, datu pertsonalik erabiltzen badu. Hala izanda, kontratua indarrean dagoen bitartean, enpresa esleipendunak, bere jardueren esparruan, egiten duen datu pertsonalen edozein tratamendu, eta tratamendu horren arduradun den aldetik, bere kontura eta bere erabakiz egiten duela ulertu behar da, orri honen **22. klausulan** berariaz ezartzen dena kontuan hartu gabe.

- Enpresa kontratistak lanak ondo egiteko beharrezkoak diren tresneria eta bitarteko osagarriak jarri beharko ditu, eta bere betebeharrak betetzeko behar dituen langileak kontratatu beharko ditu. Kasu horretan, lanaren eta segurtasunaren arloan indarrean dauden xedapenak bete beharko ditu bere ardurapeko langileekin.

21. OINARRIZKO KONTRATU BETEBEHARRAK

Hauek dira funtsezko kontratu-betebeharrak:

- Kontratua betetzea, bertako klausuletan, aplikazio-orrietan eta DONOSTIA KULTURAK kontratistari emandako barne-aginduetan ezarritakoa zorrotz gauzatuta.

- Kontratua gauzatzeko hitzartutako bitartekoak atxikitzea kontratuari.

- Zerbitzuaren koordinatzaile bat izendatzea, Casares Kultur Etxean astean gutxienez 20 orduz egon beharko duena, eta arduradun teknikoaren lanak egingo dituen pertsona bat izendatzea, Casares Kultur Etxean egon beharko duena zerbitzuaren premien arabera.

- Bere langileei aginduak, lana egiteko irizpideak eta gidalerroak ematea, eta DONOSTIA KULTURAK ez du zerikusirik izango lan-harreman horietan eta, nolanahi ere, ez du eraginik izango horietan. Halaber, enpresa kontratistari soilik dagokio zaintzea langileen lan-ordutegia, ordutegian izan daitezkeen lizentziak edo baimenak edo enplegatzailearen ahalmenen beste edozein adierazpen. Hala ere, kontratistaren

erantzukizun osoa da, orrietan ezarritako moduan, zerbitzua behar bezala estalita geratzea.

- Kontratuaren arduradunak eta DONOSTIA KULTURAKo langile teknikoek emandako jarraibideak betetzea eta kontratua DONOSTIA KULTURArekin modu koordinatuan gauzatzea.

- Zerbitzua behar bezala gauzatzeko beharrezkoak diren baimenak eta lizentziak bere kontura lortzea. Halaber, enpresa kontratistak zerbitzua egiteko dituen gastu guztiak estali beharko ditu, eta mota orotako tasak eta zergak, jarduera garatzeagatik dagokion zerga eta kontratuaren indarraldian kontratua gauzatzeagatik ondoriozta daitezkeen zerga guztiak.

- Orri honen **11. klausularen** arabera, behin betiko bermea eratzea.

- Lan-esparruan indarrean dauden lege-xedapenak betetzea (hitzarmen kolektiboa, ordainketak, eta abar), baita Gizarte Segurantzaren eta laneko segurtasunaren eta osasunaren esparrukoak ere. DONOSTIA KULTURAK ez du erantzukizunik edukiko aipatutako araudiak urratzen badira.

- Greba badago, zerbitzuak beteko dira. Zerbitzuak bermatzea ezinezkoa bada, DONOSTIA KULTURAK ahalmena izango luke zerbitzuak eskaintzeko behar diren kontratuak sustatzeko; halakoetan, fakturaziotik kenduko da kontratu horiei dagokien zenbatekoa.

Greba-garaian benetan eskaintako zerbitzuei dagokien prezioa baino ez da ordainduko.

- Langileak ordezkatzeko, betetzen duten egitekoa eta horren iraupena edozein direla, dagokien lana behar bezalako arduraz eta eraginkortasunez egiten ez badute, gaitasun nahikoa ez badute, zerbitzuak egitean arreta nahikoa ez badute edo kontratua ondo garatzeko ekintza kaltegarriak egiten badituzte. DONOSTIA KULTURAK eskaera egin eta gehienez ere hirurogeita hamabi orduko epean egingo dira ordezkapenak. Langileak ordezkatzeko DONOSTIA KULTURAK ez du erantzukizunik hartuko bere gain, enpresa kontratistak eraginpeko langileekin dituen harremanei dagokienez, eta horretarako DONOSTIA KULTURAREN oniritzia izan beharko da.

- Langileak ordezkatzeko gaixotasun, opor, baimen, lizentzia, istripu eta abarregatik izaten diren bajak estaltzeko, kontratatutako zerbitzuak eraginkortasunez egingo direla ziurtatuta. Gehienez ere hirurogeita hamabi orduko epean egingo dira ordezkapenak.

- Kontratua behar den bezala garatzeko eta betetzeko DONOSTIA KULTURAK beharrezkotzat jotzen dituen zerbitzuak eskaintzea, hala nola laneko bileretara edo informatiboetara joatea, ordainketa gehigarriak jasotzeko eskubiderik gabe. Betebehar hori bermealdiak irauten duen bitartean edo kontratua amaitu arte mantenduko da, hala badagokio.

Klausula honetan aurreikusitako betebeharrek funtsezko kontratu-betebeharren izaera izango dute SPKLTBaren 223.f) artikuluan aurreikusitako ondorioetarako. Horiek urratzea kontratua suntsiarazteko arrazoi izan daiteke, DONOSTIA KULTURAK nahi badu.

22. DATUEN BABESA

Kontratazio honen xede diren zerbitzuak eskaintzeko, alderdi hauek hartuko dira kontuan: (i) enpresa kontratistak datu pertsonalak tratatzea, DONOSTIA KULTURAREN kontura; eta (ii) enpresa kontratistak DONOSTIA KULTURAREN titulartasuneko fitxategiei gaineratutako datu pertsonalak eskuratzea.

Testuinguru horretan, enpresa kontratista behartuta dago DBLOan (bereziki 9., 10. eta 12. artikuluetan), abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuan, DBLO garatzeko Erregelamendua onartzekoan (aurrerantzean DBLOE) eta arau horiek garatzeko gainerako xedapenak betetzera.

Horrela, eta DBLOak horrela xedatuta, enpresa kontratista, tratamenduaren arduradun gisa, behartuta dago tratamenduaren erantzule izango den DONOSTIA KULTURAREkin datuak eskuratzeko dagokion kontratua sinatzera, DBLOaren 12. artikulua eta DBLOEaren 20. artikulua zehazten duten edukiarekin eta nondik norakoarekin.

Datuak eskuratzeko kontratu hori aldeek lizitazio honen xede den kontratua sinatzen den unean hitzartuko da.

Nolanahi ere, eta datuak eskuratzeko kontratuan ezartzen dena alde batera utzita, enpresa kontratistak aurreikuspen hauek kontuan hartzeko konpromisoa hartzen du:

- DBLOan, DBLOEan eta kontratua esleitzeko datan datuak babesteko arloan indarrean diren edo egon daitezkeen gainerako arauetan xedatutakoa beteko du.
- Datuak babesteko arloan indarrean den araudian interesdunentzat aurreikusitako informazio- eta baimen-betebeharrak behar bezala beteko ditu.

Horretarako, eta aipatzearen besterik ez bada ere, enpresa kontratistak behar diren bitartekoak erabiliko ditu (adibidez, klausula informatiboak formularioetan, komunikazio elektronikoak eta interesdunekin erabili behar diren bestelako dokumentuak, etab.), beti adierazita (i) datu-tratamendua DONOSTIA KULTURAREN kabuz egiten dela eta kontratazio honen xede diren jarduketak gauzatzeko; (ii) kontratazio honen xede diren zerbitzuak gauzatzean bildutako datu pertsonalak DONOSTIA KULTURAREN fitxategi batean gordeko direla, eta (iii), beraz, DONOSTIA KULTURA izango dela tratamendu horren erantzule bakarra, eta enpresa kontratista tratamenduaren arduradun besterik ez dela izango.

- DBLOEan edo gerora hori ordeztuko duten beste edozein arautan aurreikusitakoaren arabera dagozkion segurtasun-neurriak hartuko ditu.
- DONOSTIA KULTURAK eskatzen dionean, DONOSTIA KULTURAK tratatutako datuen eta hark emandako dokumentazioaren osotasunaren konfidentzialtasuna ziurtatzeko hartutako neurriak deskribatzeko memoria bat aurkeztuko du.
- DONOSTIA KULTURARI jakinaraziko dio segurtasun-neurri horiek praktikan jartzeaz eta ikuskatzeaz zuzenean arduratuko diren pertsona edo pertsonak nor diren.
- Bere langileak prestatuko ditu eta informazioa emango die datuak babesteko indarrean den arauditik sortutako betebeharrak buruz.

- Enpresa kontratista zein lizitazio honen xede den zerbitzu-prestazioan parte hartzen duten langileak behartuta egongo dira lanbide-sekretura datuei, agiriei eta kontratuaren indarraldian zehar eskuratu edo jakingo dituzten gaiei dagokienez, eta gorde egin beharko dituzte.

23. JABETZA INTELEKTUALA ETA/EDO INDUSTRIALA

Enpresa kontratista behartuta egongo da iturri baimenduetatik eta bere kabuz lortzera material informatikoa (hardwarea eta softwarea) erabiltzeko eta/edo ustiatzeko edozein lizentzia eta eskubide; baita edozein motatako beste edozein ekipamendu eta/edo bitarteko osagarrirenak ere, orri honetan eta kontratazio hau arautzen duten Baldintza Teknikoen Orrian ezarritakoaren arabera kontratazioaren xede diren zerbitzuak behar bezala eskaintzeko atxiki eta/edo aurkeztu behar dituenak.

Hori horrela, enpresa kontratistaren erantzukizuna izango da elementu horien erabilera baketsua bermatzea eta kontratazioaren xede den zerbitzu-prestazioaren barruan horiek orri honetan ezarritako moduan erabiltzeko ahalmena ematen dioten nahikoa eskubideen titulartasuna. Enpresa kontratista izango da, nolana ere, kontratutik kanpoko hirugarrenak jabetza intelektual eta/edo industrialari buruz planteatzen dezaketen edozein erreklamazioaren erantzule, eta behartuta egongo da DONOSTIA KULTURARI kontzeptu horiei buruzko erreklamazioen ondorioz sor daitezkeen kalte-galera guztiak ordaintzera.

Halaber, eta SPKLTBaren 301.2 artikuluan xedatutakoaz gain, kontratazioaren xede den zerbitzu-prestazioaren barruan sortu edo aurkeztutako edukien eta, oro har, zerbitzu horiek gauzatzearen ondoriozko emaitzaren jabetza intelektualaren eskubideak aurreikuspen hauen arabera arautuko dira:

- Enpresa kontratistak eta bere langileak sortutako edukiak:

Apirilaren 12ko 1/1996 Legegintzako Errege Dekretuak, Jabetza Intelektualari buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duenak ezarritakoari jarraikiz, enpresa kontratistari dagozkikeen eta DONOSTIA KULTURAK behar bezala zaindu beharko dituen egile-eskubide moralak gorabehera, kontratazio honen xede diren zerbitzuen barruan enpresa kontratistak eta bere langileak sortutako eduki guztien jabetza, osorik edo horien edozein fasetan, DONOSTIA KULTURArena da soilik.

Aurreikuspen horren barnean daude kontratazio honen xede diren zerbitzuen barruan enpresa kontratistak sortuko duen edozein eduki eta dokumentu, egungo edozein euskarritan, eduki idatziak, ikus-entzunezkoak, plastikoak edo beste edozein (adibidez, audio-artxiboak, dokumentazio teknikoak, etab.) direla ere.

Ondorioz, erabilera-eskubidea, ustiapen-eskubideak (erreproduktzio-eskubidea, banaketa-eskubidea, jendaurreko komunikazio-eskubide osoa edo partziala eta itzultzeko, egokitze, konpontzeko edo edozein eraldaketa egiteko eskubidea) eta, oro har, enpresa kontratistak kontratazio honen xede den zerbitzu-prestazioan sortzen dituen eduki horien jabetza intelektualaren ondare-edukia duten eskubide guztiak DONOSTIA KULTURArenak dira soilik, mundu guztiarentzat eta lege ezarritako gehieneko eperako, eta nahi bezala erabil ditzake egoki deritzon irizpideen arabera.

Nolanahi ere, enpresa kontratistak ezingo du eskatu eduki horien jabetza intelektualaren edozein eskubideren titulartasuna Espainiako Erresumako Jabetza Intelektualaren Erregistroan edo munduko beste edozein erakundetan bere izenean erregistratzeko.

Enpresa kontratistak sortutako eduki horien titulartasuna eta erabilera baketsua ziurtatuko dizkio DONOSTIA KULTURARI, eta bere gain hartuko du kontratutik kanpoko hirugarrenek jabetza intelektualari buruz planteatzen dezaketen edozein erreklamazio. Gainera, DONOSTIA KULTURARI kontzeptu horiei buruzko erreklamazioen ondorioz sor daitezkeen kalte-galera guztiak ordainduko dizkio.

- Hirugarrenek sortutako edukiak:

Enpresa kontratistak bere kabuz eta DONOSTIA KULTURAREN alde lortu beharko ditu hirugarrenek kontratazio honen xede diren zerbitzuetan jasotako jardueretan erabiltzeko sortutako edukiak eta hirugarrenek jarduera horietako edozeinetan parte hartuta sortutako besteak ustiatzeko nahikoa eskubide, DONOSTIA KULTURARI horiek orri honetan aurreikusitako moduan erabiltzeko eta ustiatzeko aukera emango diotenak; hots, funtsezko moduan, edukiak irratia eta Internet bidez hedatuta, hirugarrenei eduki horiek erabiltzeko eta/edo ustiatzeko lizentziak emanda, egoki deritzon moduan.

Aurreikuspen horren barnean daude hirugarrenek kontratazio honen xede den zerbitzu-prestazioaren barruan hartutako jardueretan erabiltzeko sortutako duten edozein eduki eta dokumentu, eta hirugarrenek jarduera horietan parte hartzean sortutako beste edukiak, egungo edozein euskarritan, eduki idatziak, ikus-entzunezkoak, plastikoak edo beste edozein (adibidez, musika-lanak eta/edo horien interpretazioak, nolanahiko audio-artxiboak, dokumentazio teknikoak, prestakuntzako eta/edo hedapeneko materialak, etab.) direla ere.

Horretarako, aldeek eskubide horiek lortzeko modua eta nondik norakoa arautuko dituzte beren artean sinatutako duten zerbitzu-prestazioaren kontratuan.

- Web-orria:

Web-orria aldatzeko eta mantentzeko zerbitzuen barruan egingo dituen programazio- eta garapen-lanei dagokienez, eta apirilaren 12ko 1/1996 Legegintzako Errege Dekretuak, Jabetza Intelektualari buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duenak ezarritakoaren arabera enpresa kontratistari dagozkiokkeen eta DONOSTIA KULTURAK behar bezala zaindu beharko dituen egile-eskubide moralak gorabehera, lan horien emaitzaren jabetza, osorik edo horien edozein fasetan, DONOSTIA KULTURARENA da soilik.

Ondorioz, erabilera-eskubidea, ustiapen-eskubideak (erreproduktzio-eskubidea, banaketa-eskubidea, jendaurreko komunikazio-eskubide osoa edo partziala eta itzultzeko, egokitze, konpontzeko edo edozein eraldaketa egiteko eskubidea) eta, oro har, web-orri hori aldatzeko eta mantentzeko zerbitzuen programazio- eta garapen-lanen emaitzaren, diseinu grafikoaren (barnean hartuta erabilera-kontakizunak eta diseinua eta pantaila bakoitzaren "Look & Feel" delakoa) eta iturburu-kodearen jabetza intelektualaren ondare-edukia duten eskubide guztiak DONOSTIA KULTURAREN dira soilik, mundu guztiarentzat eta lege ezarritako gehieneko eperako, eta nahi bezala erabil ditzake egoki deritzon irizpideen arabera.

Testuinguru horretan, enpresa kontratista behartuta dago DONOSTIA KULTURARI eta/edo hark horretarako izendatutako pertsonen kontratazio honen xede diren lanak gauzatzean

eskatuko zaien guztia entregatzera eta, nolanahi ere, zerbitzu-prestazioaren amaieran, datu, dokumentazio tekniko, erabilera-eskuliburu, analisis sortutako prozesu eta prozedura guztiak, diseinua, garapena, kontratatutako zerbitzuen ezarpen eta/edo probak eta zerbitzu horien prestazioaren emaitzaren iturburu-kodea irekian.

Enpresa kontratistak DONOSTIA KULTURARI ziurtatu beharko dizkio lan horien emaitzaren titulartasuna eta erabilera baketsua, diseinu grafikoa eta iturburu-kodea eta, hala badagokio, behartuta egongo da zerbitzu horien garapenean erabilitako eta/edo horien prestazioaren emaitzaren zati den edozein elementuren lizentziak eta eskubideak legitimoki eta iturri baimenduetatik lortzera.

Ondorioz, enpresa kontratista da jabetza industrial eta intelektualarekin lotuta egiten den erreklamazio ororen erantzule, eta kontzeptu horien ondorioz sor daitezkeen kalte eta galerengatik kalte-ordainak ordaindu beharko dizkio DONOSTIA KULTURARI.

Azkenik, esandako guztiaz gain eta kontratazio honen xede diren zerbitzu batzuen (irritiaren kudeaketa eta hedapena eta laguntza teknikoa) izaera kontuan izanda, enpresa kontratistak zaindu behar dituen betebeharrak behar bezala bete beharko ditu, jabetza intelektualaren arloan indarrean den legerian xedatutakoaren ondorioz, egileen, editoreen eta/edo jabetza intelektualaren eskubideak kudeatzeko erakundeen aurrean, DONOSTIA KULTURAK horiei kontratazio honen xede diren zerbitzuen barruan hartutako irriti-jardueraren ondorioz egin behar dizkion ordainketak barnean hartuta.

24. KONFIDENTZIALTASUNA ETA SEKRETU BETEBEHARRA

Esleipenaren publizitateari dagokionez eta enpresa lizitatzaillei eman beharreko informazioari dagokionez orri honetan xedatzen denaren kalterik gabe, DONOSTIA KULTURAK ezin izango du zabaldu enpresa lizitatzailleek konfidentzialtzat jo duten informazioa, batez ere, sekretu tekniko edo komertzialekin zerikusirik duenean.

Enpresa kontratistak, bere aldetik, kontratuak gauzatzeko eskuratzen eta ematen duen informazioaren konfidentzialtasuna gordeko du, baita orrietan izaera hori ematen zaion informazioa eta berez konfidentziala dena ere.

Konfidentzialtasunak iraupen mugagabea edukiko du.

Modu osagarrian, eta DBLOan aurreikusitakoarekin bat eginez, DONOSTIA KULTURAREN kontura datu pertsonalen tratamenduan parte hartzean, enpresa kontratistak eta bere langileek obligazioa hartzen dute datuekiko lanbide-sekretua gordetzeko eta isilpean gordetzeko.

25. ZIGORRAK

Enpresa kontratugileak, berari egoztekoak diren arrazoiengatik, proposatu dituen ikastaroen programetan adierazitako epearekiko atzeratzen bada, DONOSTIA KULTURAK aukera izango du, nahi bezala, kontratua suntsiarazteko, **32. klausulan** adierazitako baldintzetan, edo gauzatzen jarraitzea erabaki dezake. Azken kasu horretan, kontratuaren balio zenbatetsiaren 1.000 euro bakoitzeko egunean 0,20 euroko zigorrak zorpetuko dira.

Gauzatze akastuna egin bada edo edozein kontratu-baldintza betetzen ez bada, kontratuaren balio zenbatetsiaren 1.000 euro bakoitzeko egunean 0,20 euro kenduko dira. Zigor hori akatsa konpontzeko atzeratutako egun kopuruaren gainean aplikatuko da, eta beste edozein kontratu-baldintza urratzen bada, urratzen den egun kopuruaren gainean.

Zigor horiek metagarriak izango dira zinez eragindako kalte eta galerei dagokienez.

Kontratua gauzatzen jarraitzea erabakitzen bada, eta gauzatze akastunagatik ez-betetzeak iraun bitartean, DONOSTIA KULTURAK edozein unetan utz dezake indarrrik gabe kontratua, lehen adierazitako ondorioekin.

Zigorrak gauzatzeko, kenkariak egingo dira enpresa kontratugileari ordaindu beharreko kopuruan, edo, hori ezinezkoa bada, behin betiko bermearen gainean. Kasu horretan, behin betiko bermeaz gaineko kopurua erreklamatu egingo da.

Nolanahi ere, kontratua suntsiaraztea zein gauzatzen jarraitzea erabakitzen dela ere, DONOSTIA KULTURAK egokitzen jotzen duen denboraz hirugarrenen bitartez zerbitzua eskaintzen jarraitzeko erabaki dezake bere kabuz. Kasu horretan, enpresa kontratistak ordainduko du jarraipen horren kostua, kalte-galeren ondoriozko kalte-ordainei eta klausula honetan aurreikusitako ondorioei kalterik egin gabe.

26. KONTRATUA LAGATZEA

Kontratutik sortzen diren eskubide eta betebeharrak hirugarren bati uzteko aukera dago, baldin eta DONOSTIA KULTURAK aurretiaz eta berariaz baimena ematen badu idatziz. Edonola ere, lagapen-hartzaileak lege-betebeharrak eta orri honetan DONOSTIA KULTURAREkin kontratatzeke eskatzen diren betebeharrak bete beharko ditu, eta ez du kontratatzeke debekurik izango. Hori guztia lagapenaren xede diren eskubide edo betebeharrei dagokienez.

27. AZPIKONTRATAZIOA

Kontratuaren prestazioak azpikontrata daitezke, soilik DONOSTIA KULTURAK aurretiaz baimena ematen badu, berariaz eta idatziz. Edonola ere, azpikontratatistak lege-betebeharrak eta orri honetan DONOSTIA KULTURAREkin kontratatzeke eskatzen diren betebeharrak bete beharko ditu, eta ez du kontratatzeke debekurik izango. Hori guztia azpikontratatu beharreko zerbitzugintzari dagokionez.

Enpresa azpikontratatistak enpresa esleipendunaren aurrean soilik hartzen du konpromisoa. Hortaz, enpresa kontratatistak erantzungo du DONOSTIA KULTURAREN aurrean eskaintzen duen zerbitzuagatik, betiere Baldintza Ekonomiko-Administratiboen Orrian, Baldintza Teknikoen Orrian eta sinatzen den kontratuan adierazitakoari lotuta, gizarte- edo lan-arloko betebeharrak betetzea barnean hartuta.

28. KONTRATUAREN ALDAKETAK

Kontratazio Organoak kontratua alda dezake, SPKLTBaren 107. artikuluan aurreikusitako kasuetan.

29. ERANTZUKIZUNA

Enpresa kontratistak izango du eskaintzen dituen prestazioen eta zerbitzuen kalitate teknikoaren erantzukizuna, baita kontratua gauzatzean egiten dituen utzikeriek, akatsek, metodo desegokiek edo okerreko ondorioek DONOSTIA KULTURARI edo hirugarren batzuei eragin diezazkiekeen ondorioena ere.

Kontratua gauzatzeko eragiketen ondorioz, hirugarrenei egiten zaizkien edo langileek jasaten dituzten kalte eta galera guztien kalte-ordainak enpresa kontratugileak ordainduko ditu.

DONOSTIA KULTURAK ez du erantzukizunik edukiko, enpresa kontratistaren ordezkarien, horien lankideen edo horiekin batera lan egiten duten pertsonen ekintzen edo ez-egiteen ondorioz hirugarren pertsonen gainean eragiten diren kalteen aurrean.

30. KONTRATUA ETETEA

DONOSTIA KULTURAK kontratua etetea erabakitzen badu, edo etetea SPKLTBaren 216. artikulua 5. atalean xedatutakoa aplikatzeagatik egiten bada (kasu horretan berariaz aplikatzekoa da), dagokion akta egingo da. Idatzi horretan, etetea eragin duten arrazoiak eta kontratuaren egoera adieraziko dira.

Kontratua etetea erabakitakoan, DONOSTIA KULTURAK enpresa kontratistari jasan dituen kalte eta galerak ordainduko dizkio.

31. ONARPENA

Kontratua guztiz beteko du enpresa kontratistak prestazioa osorik egin duenean; betiere, kontratuan adierazitako baldintzetan eta DONOSTIA KULTURAREN adostasunarekin.

Zati bakoitza onartzen duenean eta lana osorik onartzen duenean, DONOSTIA KULTURAK erabakiko du enpresa kontratistak eskainitako prestazioak kontratua betetzeko ezarritako baldintzekin bat ote datozen eta, hala badagokio, kontratatutako prestazioak eskaintzeko eta prestazioak onartzean antzemandako akatsak zuzentzeko eskatuko dio.

Enpresa kontratistari egoztekoak diren akatsen ondorioz, lanak kontratatutako prestazioarekin bat ez badatoz, DONOSTIA KULTURAK horiek bazter ditzake eta ez du ordainketarik egin beharko edo, hala badagokio, ordaindutako prezioa berreskuratzeko eskubidea edukiko du.

Hori **25. klausulan** aurreikusitakoari kalterik egin gabe; edozein kasutan, DONOSTIA KULTURAK dagozkion zigorrak eska ditzake, baita kalte eta galeren kalte-ordainak ere, kontratuaren xede diren prestazioak eskaintzeko atzerapenik izan bada edo gauzatze akastuna egin bada.

32. KONTRATUA SUNTSIARAZTEA

Kontratua suntsiarazteko arrazoiak dira SPKLTBaren 223. artikuluko a) -85. artikuluan xedatutakoa gorabehera-, b), d), f), g) eta h) letretan aurreikusitakoak eta, oro har, kontratuko edozein betebeharrak ez betetzea, Kode Zibilaren 1.124. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Klausula honetan kontratua suntsiarazteko aurreikusitako edozein kasutan, automatikoki egingo da suntsiarazpena; nahikoa izango da DONOSTIA KULTURAK enpresa kontratistari jakinarazpen fede-emailea bidaltzea.

Hori guztia kasuan kasu egingo den kontratuaren likidazio ekonomikoari kalterik egin gabe izango da, eta jarraian xedatutakoari jarraituz.

Klausula honetan aurreikusitako arrazoiengatik edo legez egokiak diren arrazoiengatik kontratua suntsiaraztean eragiten diren erantzukizun ekonomikoak, edo legez dagozkionak, kontratua suntsiaraztean eta dagokion dokumentazioa aurkeztean likidatuko dira. Horrek ez du eragotzikiko, ordea, DONOSTIA KULTURAK hura gauzatzen jarraitzea.

Kontratua suntsiarazten bada, enpresa kontratistak, printzipioz, benetan egindako lan guztien prezioa jasotzeko eskubidea du.

Enpresa kontratugileari egoztekoak diren arrazoiengatik suntsiarazten bada kontratua, kontratuaren balio zenbatetsiaren % 20ko kantitatea zergapetuko da DONOSTIA KULTURAREN alde, izaera metagarriarekin, kasuan-kasuan ordaindu beharreko kalte eta galeren ordainez gain.

Bi kantitate horiek behin betiko bermetik eta kontratistari ordaintzeke dagoen kopurutik kenduko dira eta, hala badagokio, soberan geratzen den kopuruaren gainean erreklamazioa egingo da.

33. ARAUBIDE JURIDIKOA

Kontratuak pribatuak dira, eta prestaketari eta esleipenari dagokionez, hauek arautuko dituzte: Klausula Ekonomiko-Administratiboen Orriak, Baldintza Teknikoen Orriak, eta, horietan aurreikusita ez dagoen guztian, DONOSTIA KULTURAREN kontratatzeke barne-instrukzioek eta SPKLTBaren horri buruz ezarritako arauak, esleipen-ahalordea duten eta Herri Administrazioaz bestelako sektore publikoko erakundearen artean arautze harmonizatura atxikita ez dauden kontratuetarako.

Ondorioei eta iraungitzeari dagokionez, arautuko dute kontratua: Klausula Ekonomiko-Administratiboen Orri honek, Baldintza Teknikoen Orriak, eta, horietan aurreikusita ez dagoen guztian, zuzenbide pribatuko arauak. Hala ere, SPKLTBaren I. liburuko V. tituluaren kontratuak aldatzeari buruz ezarritako arauak aplikatuko zaizkio kontratuari.

Gainera, 817/2009 Errege Dekretua, maiatzaren 8koa, urriaren 30eko 30/2007 Legea, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa, zati batez garatzen duena eta APKLEO izango dira aplikatzekoak orri honek testu arauemaile horietara berariaz jotzen duenerako.

34. JURISDIKZIOA

Ordena jurisdikzional zibilak izango du kontratua prestatu, esleitu, ondorioak eragin, bete eta iraungiarazteari dagokionez aldean artean sortzen diren gorabeherak ebazteko eskumena.

Kontratuari dagokionez auzirik badago, aldeak Donostiako epaitegi eta epaimahaien mende jartzen dira.

Donostia, 2016ko ekainaren 14a



Jaime Otamendi Muñagorri jn.

Zuzendari kudeatzailea